

## Houston Pub taldearen kontzertua Arteako Kultur Etxean

12. orrialdea

## Harrobi futbol taldearen jarraitzaileak AK Fest antolatu dabe

AK 16 (Arlonagusiako Kornerra 2016) Harrobi futbol taldeko jarraitzaileak, egun osoko jaia antolatu dabe apirilaren 28rako. Futbolari lotutako ekitaldi ugari girotuko dabe Lemoa egun horretan. Gauean, kontzertuak egongo dira Karabie Gaztetxean. **12. orrialdea**



## Zeberio Harana mendi martxarako izena emoteko epea zabalik

11. orrialdea

TOKIKOM

# begitu

arratia ubide zeberio

# 294

2018ko apirilaren 16a  
hamabostekaria  
www.begitu.org

## Arteako Kultur Etxea: norberaren gelaren onurak

Espazio barriak sortu ziran Arteako Kultur Etxea barrizatu ebenetik eta herriko kultura bizitzan igarri egin da.



**E**rakusketak, berbaldiak, proiektinoak eta abar ugaritu egin dira. Izan be, leku aproposa eukiteak, ideak gauzatzen lagunduten dau.

Kultur Etxea arteaztarren preminetara egokitu zan eta ez alderantziz, prozesu parte hartzailean egindako hausnarketa kolektibo baten ondorioz. Han liburutegi eta ikasgela beharrezkotzat jo ebezan partaideak edo ludotekea leku argitsuago batera eroteke premina, beste gauza batzuen artean.

Poza somatzen da erabiltzailean artean. Sortutako eta barriztatuko espazioen argazkiak ikusi daitezke BEGITU honetan. **5. orrialdea**

## Larraitz Zuazo zine zuzendariagaz berbetan

**N**osotras, mujeres de Euskalduna dokumentala proiektuak Igorren, apirilaren 18an. Dokumentaleko protagonista batzuk be egongo dira hurreratzen diranakaz berba egiteko. Andra honek, 1980eko hamarkadan, burrukearen mugak lan esparrutik harago eroran ebezan Larraitz Zuazo zuzendariaren esanetan. **8. eta 9. orrialdeak**



### IGORRE

## Hirugarren kanporaketea apirilaren 28an

Lasarte Aretoa bete egin eban Zu bai Zu Talentu Lehiaketako bigarren kanporaketeak. Kanporaketa bi jokatu dira eta daborduko, hiru artista edo talde sailkatuta dagoz finalerako, gala bi honeetan saketutako hiru Inizitu botoai esker. Crazy Hospital taldea, Kader abeslaria eta Esti eta Olatz abeslariak dira zuzenean sailkatutakoak.

Hurrengo kanporaketak, apirilaren 28an eta maiatzaren 5ean izango dira, finalurrekoak maiatzaren 19an eta 26an eta finala bagilaren 10ean. **13. orrialdea**



### IGORRE

## M6rako zinegotzien babes ekitaldia

1979 urtetik gaur arte Igorren izan diran alkate eta zinegotziak, Igorren Ebatzik maiatzaren 6rako antolatuko dauan herri konsulteari babes emongo deusie apirilaren 22an, 12:00etatik aurrera. Adierazpena irakurri eta sinatzeaz gainera, ekitaldian maiatzaren 6ko konsultarako jakin beharrekoak, eta Gure Esku Dagok bagilaren 10ean antolatuko dauan giza-katearen gaineko informazioa emongo dabe antolatzaileak. **7. orrialdea**

### ZEANURI

## III. Dantzari Eguna

Arrikibar Dantza Elkarteak apirilaren 21erako III. Dantzari Eguna antolatu dau Zeanurin. Euskal jantzak egiten dituen herriko 3 taldeak eta Arratiako bost taldek hartuko dabe parte. Baita Bizkaiko beste leku batzuetatik etorriko diran hainbat taldek be. Berrehun jantzi inguru espero dabez antolatzaileak. Hamabietatik aurrera izango dira jantzi emonaldiak eskolan eta bazkalostean jantzapotea egongo da herritik zehar. **7. orrialdea**

Orue eskola

2018-2019 IKASTURTEA

LANBIDE HEZIKETA

EMAN EZAZU IZENA!

GIZARTERATZEA  
Goi Mailako Zikloa

Psikomotrizitateko  
GRADUONDOKOA  
Kreditu kopurua: 30 ECTS = 750 ordu

ADMINISTRAZIOKO  
eta FINANTZETAKO  
Goi Mailako Teknikari Zikloa

Urduliz Unibertsitatea

Institut de Formació Continua-IL3  
UNIBERTSITAT DE BARCELONA

Orue

Tel. 946 300 058 • www.orueeskola.org

publicidadea  
94 631 73 14 eta 649 979 115

www.begitu.org

Gugaz harremanetan ipinteko  
94 631 73 14 eta 649 979 112  
begitu@topagunea.com

## ARRATIA KOLOREETAN

## TXUMULUXUETA KULTUR ETA KIROL ALKARTEA

Txumuluxueta 1995. urtean sortutako alkarte da; beraz, 23 urte beteko ditu aurten. Dimako kultur alkarte zaharrena eta bakarra urte askoan.

Alkarte baten beharrezanetik sortu zan Txumuluxueta, herrian egiten ziran ekintzetarako babes administratibo edo juridikoa izateko. Berez, sasoi haretan ekintza asko antolatzen zan herrian eta danak norbanakoen izenean, eta ekintzen erantzukizuna persona batzuen gainean egoan. Edozein ekintzatan gertatu eiteken ezbeharren baten erantzukizuna norbanakoren baten edo batzuen gainean ez egoteko alkarte baten falta ikusi zan eta

hortik sortu zan Txumuluxueta izena emon jakon alkarte. Urte askotan izan dau inizatiba desbardinaren babesletzea, harik eta idea baten inguruan alkarte barriak sortzeako joerea nagusitu dan bitartean.

Herri txikiak alkarte guztiak legez, ekintza askotako urteen ondoan gitxiagokoak be ezetu ditu Txumuluxuetak, eta gaur egun ekintza nagusi bitan biltzean ditu bere indarrak: Memoria historikoa Diman eta Jentilak Diman ekimenetan, hain zuzen.

Dimako memoria historikoari jagokonez, Francok errepublikearen kontra egindako estatu kolpearen ondorioz sortutako

gerreak Diman eragindako heriotzak eta sufrimentua aztertu eta hildako eta errepresaliaduak gogoratzeko ekimena da. Hasikerako ibilbidea alkarte modura izan bazan be, 2017an ekimen hau Dimako Udalarai aurkeztu jakon eta harrezkero Udalgaz batera prestatzen dira urteroko ekintzak. Ekintza honek Dima bonbardau zan egunaren (apirilaren 7aren) inguruan izaten dira.

Bigarren gunea euskal mitologiaren eta berak eragiten dauan kultura inmaterialaren gizarzertzea da. Ekimen honek Jentilak Diman izena hartu dau. Hasikeran egun bateko ekintza legez sortu bazan be, gaur egun aste osoan



ekintzak antolatzen dira, eskolan euskal mitologiaren ezaugarriak landuz, herrian berbaldiak antolatuz eta kale animazioa sortuz. Asteko ekintza nagusia zapatuz ospatzen da. Ekintza hau eszenaleku bitan ospatzen da txandaka: urte baten Jentilzubi eta Baltzolako koben inguruetan, eta bestean, herriko pelotalekuan ospatzen dan ikuskizunagaz. Aurtengo ekintza nagusia pelotalekuan egingo da maiatzaren 19an, 22:00etan. Bertan Sugoiaren ipuin mitologikoa antzetzeko da. Ikuskizuna herriko jantza-taldearen parte hartzeagaz aberastuko da.

**Txumuluxueta Kultur eta Kirol Alkartera**

## TELEFONO INTERESGARRIAK

**Larrialdiak**

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00  
SOS DEIAK 112

**Guardiako Farmaziak**

**09:00etatik 22:00etara**

**Aprilaren 16tik 22ra**

N. Arrieta Bereciartua. Lemoa. Atutxa Sailburua 1  
Tel.: 94 631 30 18

**22:00etatik 09:00etara**

Guarrobena. Amorebieta-Etxano.

**Aprilaren 23tik 29ra**

Rodríguez Martínez. Igorre. Agirre Lehendakaria 27  
Tel.: 94 673 61 09

**22:00etatik 09:00etara**

Goiria-Montoya. Amorebieta-Etxano.

**Aprilaren 30etik maiatzaren 6ra**

Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g  
Tel.: 94 631 39 50

**22:00etatik 09:00etara**

Melero. Amorebieta-Etxano.  
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

**Urte osoan****22:00etatik 09:00etara**

Zoco Robles Miren Nekane. Urbi 15. Basauri.

**Medikuak**

**Arantzazu:** 94 631 56 89

**Artea:** 94 673 92 11

**Areatza:** 94 631 71 52

**Bedia:** 94 631 34 13

**Dima:** 94 680 19 74

**Igorre:** 94 600 74 63

**Lemoa:** 94 631 31 16

**Ubide:** 945 38 50 14

**Zeanuri:** 94 673 91 49

**Zeberio:** 94 648 20 79

**Udaletxeak**

**Arantzazu:** 94 631 56 89

**Artea:** 94 673 92 05

**Areatza:** 94 673 90 10

**Bedia:** 94 631 42 00

**Dima:** 94 631 57 25

**Igorre:** 94 631 53 84

**Lemoa:** 94 631 30 05

**Ubide:** 945 45 03 22

**Zeanuri:** 94 673 91 46

**Zeberio:** 94 648 10 79

**Udalen Mankomunitatea**

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

**Gorbeialde**

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

**Parketxea**

94 673 92 79

**Igorreko Kultur Etxea**

94 673 62 51

**Gorbeialde Irratia**

94 631 52 90

**Euskotren**

902 543 210

**Areatzako Notarioritza**

94 673 92 26

**Bizkaibus 94 612 55 55****Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

**Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri**

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

**Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik

22:30etara 30 minuturo, azkenengoa

22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

**Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango**

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era

30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30

minuturo.

**Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo**

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

**Otxandiotik urtekerak:** Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

**Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide**

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

**Zeanuri-Lemoa-Bilbo****(Autopistatik)**

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik

21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Bilbo-Lemoa-Zeanuri****(Autopistatik)**

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Zeberio-Ugao**

Lanegun eta zapatuetan:

Zeberiotik: 7:00, 08:20, 09:10\*, 11:00, 11:45\*,

14:10, 15:00, 16:10, 18:30\*, 20:20.

\* Basauriraino (Ariz) heltzean da.

Gainontzekoak Ugaoraino. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

**Ugao-Zeberio**

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 8:40, 10:20, 11:20, 14:30, 16:30,

19:40.

Basauritik (Ariz): 10:00, 19:20. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

**Artea-Zeberio-Ugao**

Lanegun eta zapatuetan: 6:50, 8:00\*, 14:00,

16:00.

\* Igorretik urtetan da bost minutu lehenago.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Ugao-Zeberio-Artea**

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 7:20\*, 13:05, 15:30, 20:40.

Basauritik (Ariz): 12:45.

\* Igorreko Instituturaino heltzean dira.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Ermitabarri-Arriorriaga**

Jaiegunetan: 8:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

**Arriorriaga-Ermitabarri**

Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

**La Union 94 427 11 11****Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan

dau eta Otxandioakoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan

dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

**Gasteiz-Bilbo**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan

dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan

dau Gasteizetik. Otxandioak ez dago.



**Argitaratzailea:** ZERTU Kultur Elkartea.

**Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

**Telefonoa:** 94 631 73 14.

**Helbide elektronikoa:** [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

**Webgunea:** [www.begitu.org](http://www.begitu.org)

**Zuzendaria:** Iñigo Iruarrizaga.

**Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

**Erredakzino taldea:** Illart Gumuzio.

**Maketazinoa:** Iñigo Iruarrizaga.

**Publizidatea:** Iñigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

**Banaketea:** Roxana Constantin (Arantzazu, Artea eta Ubide), Ibai Milikua (Areatza),

Unai Agorreta, Xabier Beitia, Marta Rodríguez eta Rut Rodríguez (Bedia eta Lemoa),

Amaia Uriarte (Dima), Oriol Fernandez eta Iker Perez (Igorre), Iratxe Arribas (Zeanuri),

eta Berbizkunde Arroita (Zeberio).

**Tiradea:** 7.300 ale.

**Inprimategia:** Iparragirre Editoriala.

**Babesleak:**

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundutakoa





## ZEURE BERBEA

### Albaniatik Zeberiora

Nire izena Julian Kola da. Espainiara etorri nintzan Albanian biolentzia gogorra sufriduta. Ze nik beti idazten neban albaniar gobernuaren sistemearen kontra, albaniarren bihotzetan labana sartzean eban mafiaren kontra. Gironara heldu ginan eta han 4 hilabetez egon ginan, baina ezin izan ginan finkatu hizkuntzeagaitik. Katalunian arazo politikoak hasi ziran eta guk ez genduan alde egin gura. Jente askori galdetu neutsan ea non egin ahal izango geunken bizimodu hobe bat eta %90ek Bilbon egin geinkela erantzun eban.

Bilbora ailegau ginanean deskalabrua izan zan. Ez genkian nora joan eta parke baten geratu ginan Polizia Nazionaletik hur. Gaueko 23:00etan desesperauta gengoan. Ez genduan hotelik topau eta ez genkian nora jo, eta Maria izeneko 38 urteko andra bat agertu zan eta ondo etorria emon euskun. Esan geuntsan Bilbora heldu barriak ginala, ez geunkala nora joan eta parkean geratuko ginala. Oso kezkatuta gengoan familia osoak kalean egin behar ebalako lo. Lagun bateri deitu

geuntsan eta 10 minutu geroago agertu zan. Berak hotel baten egiten dau behar eta hara deitu eta gaua hotelean pasau ahal izan genduan. Hurrengo egunean, Ar-teara joan ginan, Mikelonenera. Bera sano persona gizabidetsua eta zoragarria da. Hogezi egun beranduago Zeberiora joango ginala esan euskun. Eta holan hasi zan gure bizitza Zeberion.

Amaia eta Eider andreak gure bila etorri ziran, Amaia kotxe-agaz eta Amaia etxean jarri ginan biziten. Hasikeran, ezkor gengoan, baina instalau ginan bezain laster, Amaia lagunak etorri ziran ondo etorria emoten. Afari eder baten alkartu ginan eta euren babes, esperantzea eta baikortasuna emon euskuezan. Albanian bizi izandako penak atzean ixteko esan euskun, oin herri honetako parte garala, danok bardinak garala eta gure arzoak eurenak be badirala.

Arnasa hartzean hasi ginan. Zeberio herriarrak zabal hartu ginduezan eta etxean legez sentidu ginan. Imajinau ezin genduan beste disfrutau dogu jenteagaz. Inon, ez Frantzian ez Italian, ez dogu ikusi hain batuta dagoan herririk. Bereziak zarie, anfitrioi maitekor eta irribarretsua.

Zelangoa dan Zeberio? Zeberio

nekazal herri bat da Bilbotik 30 minutura dagoana. Edertasun natural bitxia dauka, lasaia eta ederra. Gure familia oin Bilbora doa biziten, eskurago eukiteko eskolak, bulegoak, hizkuntza ikasteko eta etorkizuna bilatzeko. Zeberio herriak asko emon deusku lehenengo egunetik eta ixteak min egiten deusku, Albania eta gure herria Kavaja itxi genduaneko modukoa.

Bilbora joan arren, gure bihotza beti egongo da hemen eta Kavaja aitzuko ez dogun lez, ez dogu aitzuko hemengo gazteak zelan hartu eben gure semea Skerdi. Ez doguz aitzuko ezta be Amaia, Mikel, Amparo, Eider, Isaac, Gozone, Estibaliz, Maria, Kurt, Alfredo, Paula, Maribi, Joan, Manolin eta aitatuten ez dodazan beste batzuek baina gure bihotzetan egongo diranak beti.

Ez dot berbarik topatzen hau danau eskertzeko eta begietan malkoak dodazala nago hau idazten. Sano hunkituta nago, Zeberio familia itxi behar dogulako. Eskerrik asko barriro.

JULIAN, LUMNI ETA SKERDI

### Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskeronak, hausnarketak, burutazioak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntua helarazteko. Argitaratutako derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zerbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herrian entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauze helbidea:

Zertu Kultur Elkarte  
BEGITU aldizkaria  
Herriko Plaza 24  
48142 Artea  
Edo, helbide elektronikoko honetara bialdu zure gutunak:  
[begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

BEGITU ALDIZKARIA

## ERETXIA

### Gaztea eta literatura

Zein ume sartu da ohera itak edo amak gustuko ipuina irakurri barik? Zeinek ez deutse gurasoai erregutu ostera be ipuina irakurteko? Zein ez da lokartu fantasiako personajeak amesetan jolastuz?

Txikitik izan dira liburuak gure bidelagun. Hasikeran, oihalezko edo plastikozkoak, ikututeko edo haginka egiteko erabili doguz. Gero formak bereizteko eta hiztegia ikasteko. Irudimena izaten eta baloreak ikasten erreztu deuskuez, hainbat eta hainbat galderari erantzuteko be lagungari izan dira. Abentura, misterio, maitasun... kontzeptuak liburuai esker ikasi doguz.

Orduan, zer gertatu jakie gure kaskonduai? Non galdu dira? Zer egin dogu txarto?

Alde batetik, liburuak ez dira jada opari etxe gehienetan, Olen-tzerori be aitzuten jakoz liburuak; teknologiaz lotutakoak dira oin modan dagozan opariak. Eta, behin edade batera heldu ezker, gurasook be, liburuak lotuta dagoan guztia, irakasleen lana dala pentsetan dogu, eskolan jorratu behar dan ekinga dala. Baina geuk izan behar dogu eredu.

Bestetik, irakaskuntzak irakurzaletasunari kalte egin deutso sarritan. Gaiaren garrantziaz ohartuta eta oso ondo egin guran, liburuak aztertuz, landuz, eta ebaluauz, gazteak gogaitu egin doguz. Irakurtea, gozatuteko aukerea izan barik, heziketarako tresna bilakatu dogu, hau da, behartuta egin beharreko kontu bat.

Gainera, idazle eta argitaletxe askok, gaztetxoak aitzu dabez, galdu dabe gazteak engantzetako magia. Ez dabez personajeak eta euren-tzako hurrekoak diran gaiak sortuten. Nerabearoa etapa berezia eta nekeza da; eta daukiezan interesak be guztiz desbardinak dira. Gazteak, bakotxaren izakerearen arabera, genero guztietako literaturearen aurrean dagoz, zain, zer eskeiniko begira. Ez dira umeak, beste zoezer behar dabe. Hasikeratik harrapetan dabezan liburuak behar dabez, hasikeratik intesgariak eta gustukoak di-



SARA ITURBE  
Irakaslea

ranak. Gazteak ez dauka pazientziarik. Nerabeak irakurketa mundura erakartea danon beharra da, danon artean irabazi behar dogu erronka hau, danok ulertu behar dogu irakurteak onurak baino ez dauzala ekarten. Liburu on batek irakurle bat sortzean dauala ezin dogu aitzu.

Baina ez da berandu. Gure hutsegiteki ikasi eta aurrerapausuak emon behar doguz. Helduok, guraso zein irakasle, eredu eta animatzaile izango gara.

Ezin doguz gure seme-alabak irakurtera behartu, baina, bai animau. Irakurketa atsegina eta gustuko izateko, egunero tarte lasai bat gordetea garrantzitsua da. Liburuai esker asko ikasi daikie. Irakurtea osasuntsua da arlo askotan; irudimena bizten deusku, lasaitzen gaitu, beste zaletasun asko baino aberasgarriagoa da eta horrenbesteko ardura emoten deuskun arreta faltea hobetuten lagunduten dau. Liburuetan murgildutea, atsegin dabezan istorietan sartutea, mesedegarria da euren garapenerako.

Gazteak daukiezan zalantzak, sekretuak eta bildurrak irakurritako istorioetan agertzen dira. Personajeen arazoak eta konfliktuak eurenakaz bat egiten dabe, berari buruz hitz egiten dala pentsau arazoten deutso, beretzat idatzita egongo balitz moduan sentiduten dau liburuak.

Aisialdiagaz lotu beharko geunkez irakurteko denporatxoak, irakurten gozatuten dala irakatsiz. Horreetan tarteetan geuk be disfrutetan dogula irakurten igari behar dabe, arkalegaz irakurritako irakurzaletasuna kutsatutea lortuko dogu.

Oin egin proba; sutondoan gustura jarri, apalean aspalditik gordeta dauan liburu hartu, daukan usainaz gozatu eta literaturearen magiak harrapatu zaizala. Amets egitea gustetan bajatzu, liburuak idatzitako ametsak dira.

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zerbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera.

## GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

### Amaxe



Andra ezkondu baten bikotearen amari edo gizon ezkondu baten bikotearen amari amaxe esaten jako (amaxéa, agoskatuta). Euskal Herri zabalean baina, amaginarreba da. Amaxearen figurearen inguruan hainbat topiko zabaldu dira gizartearen: kasurako, suhinak eta erranak ez deusiela estimu handirik amaxeari. Argazkikoak, ostera, zera dino: "Egunen batean zu zeu be amaxea izango zara!".

**BATZ** 50 urte

BATZ, S. KOOP.  
Torrea auzoa, 32  
48.140 IGORRE (BIZKAIA)

IZAN GINAN...  
...BAGARA ETA IZANGO GARA



## LUMATUTEN



## GONTZAL MENDIBIL

## Egunen batez

**A** din baten zagozienok, inoz irakurri edo entzun be egingo zenduen Iparragirrek XIX. mendean idatzi eban bertsoa, gero zeanuriztarrok antzerkira eroan eta kantu bihurtu gendua. Iparragirrek idatzitako bertsoa hauxe:

Egunen batez agertuko da gure goizeko izarra bere odoieta inguru dela Jaun Zuriaren itzala, eta orduan zainetan bada lbero zarren odola biziak eman esanez biba Jaungoikoa eta arbola.

Arren! Ez bada galdu esperantza gerturatzen da eguna nazionen liga edo alianza da ikusiko deguna. Orduan gora Kriston legea errespetatzen duguna. Bai, euskaldunen borondatea da herrien anaitasuna.

Kontu izan, oindino Sabino Arana jaioteko egoala. Eta he-

rien Europaz egiten zala berba. Jakina! erlijinoak gaurko aldean pisu handia eukan. Geroan, Agirre Lehendakariaren garaian, estaduen arrazoiengaitik bere ahaleginak bertan behera geratu ziran moduan, orain Catalunya gaz gauza bera gertatu da. Europako erakundeak estaduenak dira, ez herrienak, eta gu edo estatu bihurtzen gara edota herri modura euren proiektuen menpe gagoz, eta gure proiektu guztiak euren ebatzian menpe gelditzen dira.

Kakoa da Estaduen Europa hau onartzeko prest gagozan ala ez.

Eta jakin daigun, herri txikien biziraupena, geugan dagoala, ez Europako Estaduen nahietan edota programetan; argi dago, hor beti engainauko gaituela.

Ametsen eta errealdadearen bideetan mobiduten gara beti be. Ametsak amets diran bitartean, podere politikoak, podere finantzieroak eta podere faktiko guztiak lasai dagoz, baina ametsak egia bihurtu daitekezan susmoren bat hartzean badabe, hor komeriak hor! Ametsak amets, geu izatearen ahaleginak salbauko gaitu, ez beste ezerk. Geu izate horretan, gure sena eta kulturea dogu eta herri izan nahia.

Beraz, egunen batez zer izan gura dogun eta noren menpe egon gaitekezan, hortxe dago kakoa eta hor gure ebatzia. Bidean goaz, baina argi eukitea langorik ez dago.

## ZERTZEAN



## UNAX IRAZABAL

## Oharra

**E** basle isil eta sotila naz. Eskularrik erabili ez arren, balio handiko gauzak osten ditut:

Orratzen urratsak

Minutuak eta orenak

Orainak

Biktima belu ohartzen da, itzultzerik, berreskuratzerik iada ez dagoenean.

Zuri ere, irakurle militante horri,

segundu batzuk bederen, lapurtu dizkizut.

\* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera eremuan ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITU argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguz argitaratzeko baldintzak [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidean.

## BEGI TXINDORRA

Esan, edadeko andrak kaleak hartu genduzala ondo pasetako" esan eustan Kontxa Lancharesek argazia Begi Txindorrean atera gura genduala esan neutsanean. Holangoxa da Kontxa. Apirilaren 8an bere eguna izan zan eta lagunak urteguna eta jubilau barri dala ospatuteko txapel eta lumadun lepoko moreak jantzi eta kalean ospatu eben Kontxari etapa barrian zoriona opatuteko.

Baina Kontxak ezin dau egun bat pasau, mundua hobetuteko ahalegintxo bat egin barik. Eta bere eguna be "sozializau" edo, Maite Artabek oin dala urte batzuk azaldu euskun moduan, "Kontzalizau" gura dau. Hau da, ospakizuna aldarrikapen bihurtu. Mundu hobe bat egin.

Energetikoa izan zala eguna be esan deusku. Izan be, aurrean daukaguna gogorra danean, lagunak emoten deuskuelako behar dan indarra eta energia. Eta aurrean daukaguna ederra danean, eurekaz konpartidutea sano energetikoa dalako.

Kontxa, segidu energia hori guztia kontzalizatzen lagunakaz eta mundua hobea egiten Areatza eta edozein herriko kaleetan.



**Gorosti** Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea  
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
gorosti@gorostiscl.com

**agoa** Ortodontzia  
Implanteak  
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa  
Ondarroa

Bidebarri 1, behea  
48140 Igome-Bilaka  
T. 94 631 50 39  
Kalegora Zerbaita 100  
R.P.S. 21/06

**Beer & Edariak s.l.**

HEINEKEN SOLARES

Polig. Mendaketa, n.º 3. 48550 IZEMOIA, Bizkaia  
Tel: 000-480839000-000200717

**FISIK**  
FISIOTERAPIA ETA  
ERREHABILITAZIO ZENTROA  
Tel. 94 685 11 16  
LEHENDAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE



## ARTEA

# Arteako Kultur Etxeari bisitea

Prozesu parte hartzaile baten bitartez definitu ebezan arteztarrak zertarako gura eben Kultur Etxea eta horren arabera banandu ziran espazioak. Martxan da. Lekuz aldatu ziran ludotekea, musika eskolea eta BEGITU, baktxaren preminetarako egokiagoak ziran espazioetara. Liburutegia eta ikasteko gela bat sortu dira. Ikuskizun zein erakusketetarako areto handi bat be badago eta batzar gela bat. Jubiladuak eta andrak be euren gelak ditue.

### Erredakzinoa



Areto Nagusia.



Ludotekea.



Liburutegia.



Jubiladuen gela.



Arratiako Musika Eskolea.

## DIMA

# Sugoiren ipuinaren gaineko ikuskizuna Jentilak Diman 2018n

### Erredakzinoa

Maiatzaren 19an izango da aurtengo *Jentilak Diman* ikuskizuna. Txumuluxueta alkarteak antolatzen dau ekimen hau euskal mitologia ezagunago egiteko herritarren artean. Horretarako, mendi ibilbidea eta ikuskizuna txandakatu egiten ditue eta aurtengo ikuskizuna egingo dabe frontoian. Ikuskizunaz gainera aste osoko programazinoa prestatzen dabiz.

Mitologia ezetuten emoteko ekitaldi ugari egingo dabez Diman aurtengoan. Horretarako batzuk herriko eskolako ume eta ikasleak egingo dabez. Euskal mitologiari buruzko olgeta eta jolasak, bolumenezko irudien eta ipuin mitologikoen lehiaketak, ipuin kontalari bat be ekarriko dabe... Beste ekintza batzuk ostera, helduentzat egingo dira programautan; Arratiako ipuin mitologikoen gaineko berbaldia, tartean. Atzenik, maiatzaren



Igazko irudia.

19an, zapatuan, *Sugoiren ipuina* ikuskizuna antzeturako dabe dimoztarrak. Horretarako, ipuin mitologikoa antzerki bihurtu dabe, pertsonajeak ezarri eta alkarrizketak

sortuz. Aktoreak, hiru hilabete darozue ensaioak egingen.

### Lehiaketak

Txumuluxueta alkarteak Dimako

liburutegiagaz eta herriko eskoleagaz batera lehiaketa bi antolatu ditue aurtengoan Jentilak Diman ekimenaren barruan. Lehenengoa, gaia euskal mitologia izanik, 8-11 urte bitartekoentzako Bolumenezko Irudien Lehiaketa da, eta bigarrena 12-16 urte bitartekoentzako Ipuin Mitologikoen Lehiaketa.

Lanak entregetako epea maiatzaren 7a da eta herriko eskolan entregatu behar dira. Lanok bakarka zein taldeka aurkeztu leitekez.

### Webgunea

Aurtengo Jentilak Diman ikuskizunaren webgunea sortu dabe [jentilakdiman.wordpress.com](http://jentilakdiman.wordpress.com) helbidean ikuskizunaren barri emoteko. Irudien galeria be badago bertan, apurka hazten joango dana.



## BEDIA

**Aitor Sorriketa da EAJ-PNVtik  
2019ko Udal Hauteskundeetara  
aurkeztuko dan alkategaia****Erredakzioa**

Bediako EAJ-PNVren Udal Batzarrak Aitor Sorriketa izentau eban ago batez martian, 2019ko maiatzeko udal hauteskundeetarako EAJ-PNVren alkatetzarako hautagai. Aitor Sorriketak, oingo alkatetako, 15 urte daroaz beharrean Bediako Udalean. Alkatetzarako bere bosgarren hautagaitza da hau.

Agintaldi honetan, Errekaondo kalean oinezkoak lehenetsi dituan urbanizazioa amaitu da

eta aurten Jauregi-Yeuri auzoa oinezkoentzat jartzeko urbanizazio lanak hasiko dirala dino Sorriketak. Kasu honetan be lehenetsuna daukienak personak izango dira, eta ez ibilgailuak. Gobernu taldeak Bediako lehen Gazteria Plana bultzatu dau, eta, gaur egun, galdeketa bat egiten dihardue 60 urtetik gorako herritarren artean, euren beharrak jakiteko. Diagnostikoaren helburua herrian "bizi kalidade aktiboa eta osasuntsua izatea ahalbidetuko dauan ingurune bat sortzea da".

## UBIDE

**Olalde  
Aterpetxea  
alokairuan  
hartzeko  
eskeintzak  
aurkeztu  
daitezke****Erredakzioa**

Ubideko Udalarena da Olalde Aterpetxea. Urtebetez alokairuan

hartzeko interesa daukienak udalarekin izena emon behar dabe eta eskeintzak aurkeztu daitezke maiztaren 7ra arte.

Aterpetxea "eskeintzarik onuragarriena" aurkezten dauanari adjudikauko jako. Lizitazioaren oinarriko aurrekontua hilean 150 eurokoa izango da.

Olalde Aterpetxea Gorbeia Parke Naturalean dago. Solairu bakarreko eraikina da eta 24 laguntzako lekua dauka. Sukaldea, janlekua, 12 laguntzako logela bi eta bainugela-bateria bi dauka. Kanpoan, lorategia, zabuak, mahaiak eta saskibaloi pista.

## LEMOA

**Arratiarrakaz berbetan  
ekimenak aprilean kirolaren  
gainean jardungo dau Lemoan****Erredakzioa**

Arratiako EAJ-PNVtik antolatutako berbaldi zikloaren hurrengo hitzordua Lemoan izango da, apirilaren 20an, 19:30ean, jubiladuen tabernearen gaineko aretoan. Kirolaren gaineko mahai-ingurua izango da eta bertara deituta dagoz Lorea Bilbao Euskara eta Kultura



Lorea Bilbao.

Foru Diputadua, Asier Etxezarraga Arratiako Kirol Taldeko presidentea, Aitzol Atutxa aizkolaria eta Danel Elezkano pelotaria (ondino konfirmatu barik).

Mahai inguruaren helburua nagusia da herritarrek eta erakundeetako ordezkariak eta kirolariak alkatetara. Bilbaok eskola kirolaz, BFAk sedentarisismoa burrutatzeko abian jarritako neurriez, bertako kirola bultzatzeko *Sustraiak sustatzen* ekimenaz eta eskola kirolaren jarkera txarrak desagerarazteko *Txartel beltza* ekimenaz egingo dau berba; Etxezarragak integrazioaz eta futbolearen presentzia eta egitekoaz, eta Atutxak eta Elezkanok herri kirolaren osasunaz eta euren esperientzia profesionalak azalduko dabez.

## ARRATIA

**Euskal Herriari itzulia motorrez****Erredakzioa**

Arratia Motor Taldeak II. Euskal Herriari Itzulia motorrez antolatu

dau. Igorretik urtengo dira apirilaren 28an, goizeko 08:00retan eta bertan amaitutea espero dabe hurrengo egunean arrastiko zazpi-

rak aldera 900 km. egin eta gero. Berrogeta hamar motorrek egingo dabe itzulia.

Igazkoaren kontrako norabidean joango dira partaideak. Kostaldera eta ekialderantz joko dabe lehenengotik. Holan, hamaiketako egiteko Itziarren egingo dabe geldialditxo eta Uztaritzen bazkalduko dabe. Gaur Izaban pasau eta Nafarroan zehar hasiko dabe ibilaldia hurrengo egunean. Hamaiketako Kaparrosen egingo dabe eta bazkaria Murietan. Dana ondo joan ezker, 19:00ak aldera amaituko dabe Euskal Herriari itzulia Igorreko Kultur Etxean.

**Eguraldiaren menpe**

Eguraldia sano garrantzitsua izango da itzulia osoa egin ahal izateko. "Igaz itzulia ez zan amaitu pentsautan genduan moduan, euria zala eta. la oingoa aurreikusita doguna beteten dan. la danok batera Igorreko Kultur Etxean amaitu eta topa egiten dogun dana ondo joan dalako" dino Edorta Zurinaga Arratia Motor Taldekoak.

## ARRATIA

**Valentziako musika  
ikasleai bisitea  
bueltetako gogoagaz  
dagoz arratiarrak****Erredakzioa**

Aprilaren 6an hasi zan arratiar eta Valentziako abentura. Arratiako Musika eskolako ikasleek etxeetan egon ziran La Poble Llargako ikasleak aste goiena pasetan eta bisitea aprobetxauz kontzertu bi eskeini ebezan.

Lehenengo egunean San Juan de Gaztelugatxe eta Bermeo bisitatu ostean, Areatzako monjen komentuan eskeini zan lehenengo kontzertua. Hurrengo egunean, Bilbo ezetuten joan ziran Valentziako eta iluntzean Igorreko Lasarte Aretoan eskeini eben kontzertua. La Poble Llargako ikasleak banda moduan jo eben. "Aitatzekoa da ia 5.000 biztanleko herri baten hiru banda dagozala; ume, gazte eta helduen banda" dino Garazi Olabarrieta Arratiako Musika Eskolako irakasleak.

**Datorren urtera begira**

Egonaldiaren balorazioa ona egiten dau irakasleak eta datorren ikasturtean Arratiako joango dirala Valentziara ekarri dau gogora. "Hasi gara maletan zer sartu pentsetan" dino.

## IGORRE

**Eztabaida energetikoa  
Lasarte Aretoan  
apirilaren 26an****Erredakzioa**

Gatikatik Frantziara eta Gueñesetik Itsasora, Bizkaia, Gipuzkoa eta Kantauri itsasoan zehar egin gura daben interkonexio elektriko bien kontrako herritarren taldeak eta Igorre Bizirik-ek, *Eztabaida energetikoa Bizkaian. Autopista elektrikoak norentzat?* izeneko mahai-ingurua antolatu dabe apirilaren 26an, 19:30ean, Igorreko Kultur Etxean, ia 2.000 milioe eurotako aurrekontua daukan goi-tensinoko proiektu bi honeen gaineko informazioa emoteko. Beinat Anzola, Igorreko alkatea; Rosa Martinez, (Equo Berdeak); Mikel Otero (EH Bildu) eta Aitor Urresti, energia barritagarrietan aditua eta EHUko irakaslea egongo dira bertan.

**Gueñes-Itxaso goi tensinoko linea**

Gueñes eta Itxaso arteko goi-tensinoko linea 400.000 voltioko tensinoa izango dau eta Bizkaiko 17 herritatik, balio ekologiko handiko eremuetatik eta hainbat auzotatik pasauko da; tartean, Zeberio, Bedia, Lemoa, Zornotza... Igorretik, Garakoi, Urkuzu, Igorrebasa eta Basauntzetik. Baita Aramotz, Belatikietan, Mandoia, Upo, eta Ereñotik be pasauko da autopista elektriko.



## IGORRE

# Herri konsulteari babesa emongo deusie Igorren zinegotzi izandakoak

### Erredakzinoa

Maiatzaren 6an herri kontsulta egingo dabe Igorren. Hori presatzeko hainbat ekintza antolatu ditu atzenaldian Gure Esku Dago Igorren Ebatzi alkarteak. Hurrengo ekitaldia, apirilaren 22an, udaletxeko plazan egingo dabe. Han, 1979tik gaur egunera arte, Igorren izandako alkate eta zinegotziak babesa eskeiniko deusie erabakitze eskubidearen aldeko adierazpenari, eta herriak babesa emongo deutso M6ari.

"Jaia eta aldarrikapen demokratikoa eta partehartzailea buztartuko dira, igorretarrak parte hartzeako, hau da, botoa emoteko deia eginaz. Bardin jaku baietz, ezetz zein zuri baina, gure etorkizuna ebazteko beharrezkoa da botoa emotea" dinoe Igorren Ebatzi alkartetik.

### Babes ekitaldia

Trikilariak ingurua girotuten



Maiatzaren 6an eukiko dabe igorretarrak botoa emoteko aukerea.

hasiko dira 12:00etan eta ordu erdi beranduago hasiko da zinegotzien babes ekitaldia. Ekitaldiari hasikerea emondakoan, maiatzaren 6ko herri konsulteari babesa emoten deusian adierazpena irakurri eta sinatu egingo dabe Igorren alkate eta zinegotzi izandakoak. Gero, aureskua edo agurra eta bertsoak eta kantuek

egongo dira. Ondoren, Igorren Ebatzi alkartekoak maiatzaren 6aren inguruko zehaztapenak emongo ditue eta bagilaren 10eko giza katearen gaineko informazioa. Giza katearako izena emoteko aukerea egongo da eta materiala salgai.

Amaitzeko, kopautxoak jai giroan eta poteoa trikilariakaz.

## IGORRE

# Herri memoria ezezagunean arreta ipinteko proiektzioa eta barriketaldia

Ipes alkarreak, *Gernikaren egiak*. Oroimen biziko herria ikus-entzunezkoa ekarriko dau Igorreko Kultur Etxera apirilaren 27an, 17:00etan, eta ostean gaiaren inguruan berba egiteko aukerea egongo da. Memoria historikoari beste ikuspuntu batetik helduten deutso dokumentalak, herri mobimentuaren papela azpimarratuz eta andren abotsa lehenetsiz.



### Erredakzinoa

Ipes alkarreak, Gernika bonbardatu ebela 80 urte bete zira-nean, *Gernikaren egiak*. Oroimen biziko herria proiektua ipini eban martxan. Igazko apirlean liburua argitaratu eben eta bigarren tiradea atera behar izan dabe. Ikus-entzunezkoa urrietan estrenatu eben eta apirilaren 27an Igorren erakutsiko dabe. Lemoan, maiatzean egingen dan memoria historikoaren astean be ikusteko aukerea egongo da.

### Begirada eta eretxi desbardina

Ikus-entzunezkoa begirada eta eretxi desbardinen ikuspegitik egin dabela dinoe Ipesetik. "Ezezagunagoak diran gertaera historikoari arreta ipini, andren abotsa lehenetsi, eta herri mobimentuen papela hausnartzeko, neurri handi baten. Funtsean, ezagupenerako, eztabaidarako eta gogoetarako tresna izateko asmoz eginga dagoan lana dalako egitasmoa".

Lan honetatik ondorio batzuk atera ditue, herri memoriaren berreskurapen edo eraikuntzan hain ezagunak ez diran gaietan arreta

ipintek interesa sortzean dauala eta horrek belaunaldi gazteenarengana heltzeako aukerea emoten dauala, beste batzuen artean. Igorreko saioa, Kiñu Gaztetxeagaz alkarlanean prestatu dabe.

### Ipes

Ipes alkarreak 1977tik dihardu beharrean. Berrogei urte honetan arreta berezia eskeini deutso Euskal Herriko historiari, "bakotxaren ingurunea ezetu eta eraldatzeko moduko jantziak" ekoizteko.

## ZEANURI

# Berrehun jantzari inguru batuko dira Zeanuriko III. Dantzari Egunean

Aprilaren 21ean Zeanuri euskal jantzak egiten dabezan inguruko jantzarien topaleku bihurtuko da. Arrikibar Dantza Elkarreak antolatuko dau III. Dantzari Eguna eta bertan herriko hiru taldeak, Arratiako beste bost taldek eta Bizkaiko beste herri batzuetatik etorritakoak euren jantzen erakustaldia egin eta jantza giroa ipiniko dabe herrian egun osoan zehar.



### Erredakzinoa

Antolatzaileak 150-200 jantzari espero dabez, herrikoak eta kanpotik etorritakoak. Zeanuriko hiru talde dagoz eta hirurak hartuko dabe parte: Etzanderak, Zeanuriko umeen jantza taldea eta Dantzari Eguna antolatuten dauan Arrikibar Dantza Elkarrea. Arratiatik, Areatzako Dantza Taldeak, Arteako Dantza Taldeak, Bediako Dantza Taldeak, Dimako Gazte Barrik eta Igorreko Arantzartek be konfirmatu dabe euren partaidetzea. Baita, Usansoloko Oinarinek, Erandioko Goi Alde Dantza Taldeak eta Larra-betzuko Bizkargi Dantza Elkarreak.

### Jantza giroa

Arrikibar Dantza Taldearen filosofia da jantzak bizitzari eusten lagunduten deusala eta jentea batu egiten dauala. Horregaitik eta gazteak jantzarako berreskuratzeko erreperau eben Dantzari Eguna oin dala bi urte.

Jantzariak harrerea 11:00etan egingo jakie plazan, ordu erdi beranduago hasiko da kalejirea eta ostean, jantza emonaldia eskolan. Alkarregaz bazkalduko dabe herri eta edade desbardinetako jantzariak. Bazkalostean, Kittu taldeagaz kantuan eta jantzan ibili eta 18:00etan, jantzapotea egongo da herria girotzeko.

**RUGBY TABERNA**

•Egin zaitetz bazkide!  
•09:30etik zabalik  
•Asteburetan pintxo bereziak

arratiko.zekorrak@gmail.com  
http://santxisme.blogspot.com/

**ARKITEKTO TEKNIKOA**

- EIT - ITE (Erakinen Injeneria Teknikoa)
- EEZ - CEE (Erregurgintzan Energetikoaren Zuzendakaria)
- Segurtasun eta Osasun Planen erredakzinoa (PSS)
- Obren zuzendaritza eta segurtasun eta osasun koordinazioa

Almudena Simarro Armero  
664 763 741  
arkitektura@almuartek.com  
ZEANURI  
almuartek.com



## NOSOTRAS, MUJERES DE EUSKALDUNA

# Larraitz Zuazo: "Askotan, untziolako langileak ez eben zilegi ikusten andren burrukea, lekuz kanpo egozala argudiatuz"

Aprilaren 18an, 19:00etan, AUMek eta Arratiako talde feminista eta andra taldeak antolatuta, Larraitz Zuazo zuzendariaren *Nosotras, mujeres de Euskalduna* dokumentala proiektuako da Igorreko Lasarte Aretoan. Dokumentalean agertzen diran Begoña Gutierrez, Eli Zugaza eta Andrea Gutierrez egongo dira gaiaren inguruan berba egiteko.

Zuazo Begira ekoiztetxearen zuzendaria da. Dokumentalaren generoa beti izan dau oso presente eta Bartzelonan master bat egin ondoren, torturaren ondorio psikologikoak aztertzen ebazan *POR* izeneko dokumentala zuzendu eban 2003an. Dokumentalak saria jaso eban Zallan. Hortik aurrera, errealizadore eta editore legez proiektu askotan hartu dau parte. 2016an *Nosotras, mujeres de Euskalduna* zuzendu eban eta 2017an, *163 días, la huelga de Bandas*.

## Erredakzioa

### Zergatik ebatzi zenduan gai horren inguruko dokumentala egitea? Zinebin estrenau zan 2016an, ezta?

Gaiaren proposamena Zinebiren eskutik heldu jatan. Atzen urteotan jaialdiak bertoko zinegileen alde egindako apustuaren bidean, nigan pentsau eben. Gai honen inguruan dokumental bat egiteko ea beste mami bat ikusten neban galdetu eusten eta berehala erakari ninduan proiektuak.

### Gatxa izan zan protagonistakaz kontaktuan ipintea? Nortzuk dira protagonista horreek?

Proiektuan lanean hasi bezain laster, Araitz Rodriguezegaz egin neban topo. Bera Euskaldunako langile baten alaba da eta gai honen inguruan asko ikertutakoa. Arin konektatu genduan eta biok batera bere ikerketan hurrengo pausu bat emotea proposatu neutsan, hau da, bera be dokumentalaren parte izatea. Egia da, honek asko arindu eustala prozesua, batez be protagonistakana heltzeako bidea.

Dana dala, lanean hasteaz batera konturatu nintzan prozesuak

baeukala zailtasun nabarmen bat: memoria faltea. Burruka haretan parte hartu eben andra askok ez dabe barirro inoz gaiaren inguruan berba egin eta guztiz ahaztuta daukie egun hareetan gertatutakoa. Harritzekoa da, argazkietan ikusten diran beste andra ikusita, ez ginala gai izan 7 baino gehiago topatzeko. Gure protagonistak, Euskaldunako gatazkan "Asamblea de Mujeres de Euskalduna" (AME) izenpean, euren bikotekide, seme-alaba zein gurasoen alde burrukan egitea ebatzi eban andra talde bat da.

### Zein izan zan Euskaldunako andren ekarpena burrukara? Errekonozimentua izan eban bere momentuan?

Andra honeek kalera urteteak, eta egiten ebezan ekintza motak ikusita, arazoa gizarteari ikustarazoten lagundu eutsan. 80. hamarkadan, gizarte haretan eta adin haretako andrak burrukan ikusteak izugarrizko inpaktua eukan. Burrukaren mugak lan esparrutik harago eroan eta familia guztia inpliketea, eta beraz, gizartea bere osotasunean, eukan helburu.

Pena da, baina bere momentuan ez eban errekonozimentu

handiegirik izan. Oindino gehiago, askotan untziolako langileak ziran burruka hori zilegi ikusten ez ebenak, andra hareek lekuz kanpo egozala argudiatuz.

### Ze harrera izan dau dokumentalak?

Oso ona. Zinebin estreinaldiaren egunean itzelezko jente piloia etorri zan, baita asko kanpoan geratu be. Bigarren pase bat egin behar izan eban jaialdiak. Ostean, jaialdi batzuetan parte hartzeaz gain, herri zabaldu da. Horixe dala





helburua esango neuke: zabaltzea. Andra honeen memoria berreskuratu, errekonozidu eta ezagutu arazotea, hain zuzen be. 30 urteren ostean bada be.

**Gauzak asko aldatu dira. Ez bakarrik fabrika egoan lekua, baita langileen burrukak eta andrenak be.**

Bai. Euskalduna egoan lekua, sano-sano aldatu da. Dokumentalak horri be egiten deuto kritika txiki bat. Ez egoan modurik paisaje hori beste era batera eraldatzeko? Horrenbeste palmera jarri beharrea, Miami paseo baten itxurea hartuz, agian gure uriaren memoria errespetau eitekean zelanbaist...

Aldatzeko modu hori izan daiteke joera orokorraren seinale gainera. Gaur egun gauzak ez dira bardin burrukatzen. Kasu batzuk salbu, askoz gizarte indibidualagoan bizi garala esango neuke. Askorentzat



Larraitz Zuazo.

Euskaldunakoa azken langile burrukea izan zan... Dana dala nik ez neuke horrenbeste esango. Egun be ikusten dira burruka kolektiboak, egungo egoerara egokituta baina burruka egiten dabenak.

**Zeintzuk dira zure hurrengo proiektuak?**

Badaukat pare bat proiektu eskuartean, baina guztiz konfirmatu barik dagozanez, ez dot larregi

berba egin gura. Biak dira oso interesgarriak, bata, nire pasioa dan musikearen inguruan dalako eta besteak, baje luze eta aberasgarria dakarrelako bere baitan. Ikusiko dogu!

Momentuz Igorreko emonaldia-gaz asko disfrutetea espero dot eta andra honeek egin eben lanak behintzat zerbaist pentsau arazoten badeusku, helburua lortuta!

### Nosotras, mujeres de Euskalduna. Fitxa teknikoa

67 minutu

Dokumentala

**Zuzendaria:** Larraitz Zuazo

**Gidoia:** Larraitz Zuazo eta Araitx Rodriguez

**Argazkia:** Juantxu Beloki

**BSO:** Aranzazu Calleja

**Ekoizpena:** ZINEBI / TYF-Territorios y Fronteras Research on Documentary Filmmaking

**Ekoizle buruak:** Vanesa Fernandez eta Patxi Azpillaga

# ALKIZABAL

**ZURE BEHARREI ERANTZUNA**

Bolunburu Poligonoa, 19  
Amorebieta - Lemoa errep.  
48330 LEMOA (Bizkaia)

Tel. 946 31 44 06  
Fax. 946 31 20 26  
alkizabal@alkizabal.net

[www.alkizabal.net](http://www.alkizabal.net)

**Basoak garbitzeko makineria**

**ERAIKUNTZA ETA INDUSTRIARAKO SOLUZIOAK**

ERAIKUNTZA, LOREZAINZA, EKITALDI ETA INDUSTRIARAKO MAKINERIA KONPONKETA ALOKAIKURUA ETA SALMENTA

# Orue eskola

**2018-2019 IKASTURTEA** EMAN EZAZU IZENA!

LANBIDE HEZIKETA

## GIZARTERATZEA

Goi Mailako Zikloa

## ADMINISTRAZIOKO eta FINANTZETAKO

Goi Mailako Teknikari Zikloa

## Psikomotrizitateko GRADUONDOKOA

Kreditu kopurua: 30 ECTS = 750 ordu

IL3-Bartzelonako Unibertsitateak igorritako titulua

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Institut de Formació Contínua-IL3 UNIVERSITAT DE BARCELONA

[www.orueeskola.org](http://www.orueeskola.org)  
Tel. 946 300 058



## FUTBOLA

**Sportingek irabazi eban Harrobi Txapelketea****Erredakzioa**

Lemoako Harrobi Futbol Klubak antolatutako V. Alebin Futbol Txapelketea Sportingek irabazi eban Athleticeri 2-1 nagusituta. Athletic juxtu-juxtuan pasau zan finalera. Zaragozaren kontra jokaturako finalurreko partidua husna amaitu zan eta penaltiak ebatzi eben Athletic finalera pasauko zala. Sporting taldea bere aldetik, 3-2 nagusitu

jakon Atletico Madrileri finalurrekoetan. Finalean, Athletic baino gehiago izan zan, txapela lortuz.

Txapelketearen gaineko balorzino ona egiten dau Alex Maguregi antolakuntzakoak. Txapelketan parte hartu eben taldeak maila ona erakutsi ebela dino eta eguraldiak lagundu ez arren, batez be arrastian, jente asko egon zala publikoan futboleko kimuak animetan.



## FUTBOLA

**Janari bankurako jateko bilketea Urbieta zelaian****Erredakzioa**

Arratia futbol taldeak, Bizkaiko Janari Bankuagaz batera, apirilaren 22an, janari bilketea egingo dau, 08:00retatik 21:00etara Urbieta futbol zelaian.

Domekea izanda, kategoria desbardineta partiduak egongo dira egun osoan zehar, sarrerea doban izango da, eta zelaira doazenai, janari bankurako jatekoak eroatea eskatzen deutsez Asier Etxezarraga Arratia futbol taldeko presidentek. Izan be, futbola ezin dala gizartearen arazoetatik hurrun egon eretxita, bere garautxo ipini izan gura dau taldeak ekimen honeguz. "Futbol zelaira datozen ume, heldu, jokalaria, entrenatzaile... guztiak 5 kilo jaki ekarte gurako geunke. Jaki ez galkorak: kakaoa, olioia, tomatea eta arrain konserbak badira, hobe" dino Etxezarragak.

Parte hartze aldetik, zein jaso-tako janariaren aldetik ekimena arrakastatsua izatea espero dau

Arratia futbol taldeko presidentek.

**Arratia A andrazkoak**

Andrazkoen Euskal Liga amaituteko partidu bi baino ez dira falta eta Arratia bigarren dago sailkapenean 69 puntuguz, Bizkerre liderrarengandik 5 puntura. Hamabostaldi honetan jokaturako partidu bakarra irabazi egin dau Arratiak. Apirilaren 14an, Derioren kontra 0-4 irabazi eban. Datorren partidua Erandioko

Betiko Neskak taldearen kontra jokaturako dau Arratiak apirilaren 22an 13:00etan Urbietan.

**Arratia A gizonezkoak**

Gizonezkoen lehenengo taldea, Lurraldeko Ohorezko Mailan dagoana, Gatika liderrarengandik 6 puntura dago eta bosgarren da sailkapenean. Jokaturako atzen partiduan, apirilaren 14an jokaturakoa, bardinketea lortu eban Galdakaoren kontra etetik kanpo, aurreko astegoienean jokaturako partidua osteran 3-1 irabazi eban Etxebarri Aren kontra Urbietan. Datorren partidua, apirilaren 21ean jokaturako dau Urbietan 17:15ean Sondikaren kontra.



# begitu

arratia ubide zeberio

## ez da debalde



**Emon gitxi, eta jaso asko. Badira, zure diru apur bat merezidu daben berbak. Izan zeu be Begitu-laguna!**







## ANTZEZLANA

## Txotxongiloakaz egindako antzerki kontzertua Igorren

## Erredakzioa

LaEnanaNaranja konpainiak, *Kontukantari 2. Mendian ibiltari txotxongilo* ikuskizuna ekarriko dau Igorreko Lasarte Aretora apirilaren 27an, arrastiko 18:00etan.

Jon Koldo Vazquezen zuzendaritzapean, Marta Alvarezek, Itziar Fraguak edo Miren Larreak eta Iñigo Eibarrek edo Jon Koldo Vazquezek manipulauko dabez panpinok. Musikea Roberto Castro "Boti"rena da eta Sandra Fernan-

dez Agirre eta Aintzane Crujeiras dira abeslariak.

Lanak hamar abesti berrikusten ditu. *Haurtxo polita, Axuri beltza, Aldapeko, Ikusi mendizaleak, Loretxo bat, Baratze bat, Kolpe kolpeka, Guk euskaraz, Furra, furra* eta *Arratsalde honetan*. Izan be, Nanu, Granu eta Kanuto txango bat egiteko prestatzen dabiz. Arratsalde honetan, mendi tontor gainera igon behar dabe, baina aldapeko sagarraren adarraren puntan, loretxo bat aurkitu dabe...

## MUSIKEA



## Houston Pub taldea Arteako Kultur Etxean

## Erredakzioa

Apirilaren 20an, 20:30ean Houston Pub taldeak kontzertua eskeiniko dau Arteako Kultur Etxean. Iñaki Akesolo, Josu Etxebarria eta

David Ibarrek osotutako taldeak disko bat dauka merkaduan, *Zure ondo taberna* 2017an kaleratutakoa.

Dana dala, taldeko partaideak ibilbide luzea daukie musika

munduan eta alkarregaz 5 disko kaleratu ditue banda desbardinetan. The Impresentables eta Harrobi taldeko kideak izan dira hirurak, eta banda horreekaz beste lau disko daukiez. Banda bakoitzeko disko bina. *The Impresentables* (1.991), *Impresentablek aitaren etxean* (1.995), *Moai* (2.006) eta *Harrobian Indusi* (2.009), hain zuzen be.



## ERAKUSKETEAK

## Iñaki Markaidaren argazkiak ikusgai Erakusketa Aretuan

## Erredakzioa

Apirilaren 19tik maiatzaren 14ra arte, Iñaki Markaidaren argazkien erakusketea egongo da Igorreko Kultur Etxean. Bertan, argazkilaria- ren ibilbidea ikusi ahal izango da,

argazkigintza analogikotik digitale- ra, beti be sormena eta teknika batzean dabezan argazkietan.

Erakusketa hau urte askoko lanaren emaitza da. Bertan, argazkigintza analogikoa eta digitala bateratzen dira sormena eta teknika nahastuz, hainbat gai jorratuta. "Hirurogeiko hamarkadan argazkigintzan hasi nintzanean, ezin neban imajinatu irudien mundu magiko hau hain barrurino sartuko jatanik" dino egileak. Gaiak hainbat monografiatakoak dira, danak helburu bikotxagaz: norbera gain sartzea sentimendu bihurtu arte eta edertasun plastikoa bilatzea mezuaren gainetik.

## JAIA

## AK Fest, futbolzale alternatiboen jaia Lemoan

## Erredakzioa

AK-16 izenagaz sortu zan oin dala urte bi Lemoan, "modu xume eta umoretsu baten futbolaren ariman ezari diran deabru eta munstroen exorzismoa" egitera datorren taldea. Hau da, beste modu bateko futbolzaleak dira AK-16koak. Izena sortu zan lekutik hartu dabe "Arlo-nagusia (Lemoako futbol zelaia) Kornerra da gure jaioterra eta 2016 urtea jaiotze data" euren esanetan.

AK-Fest, egun osko jaia antolatuta dabe apirilaren 28rako. Goizeko 10:16an hasiko da txupina botatokoan, eta ordu txikietan amaituko da Karabie Gaztetxean izango diran kontzertuakaz.

## Jaia

Txupinazoagaz batera, Street

Football eta Freestyle Txapelketari ekingo deusie, futbolaren "alderik dibertigarriena eta parte hartzaileena" antolatzaileen eretxian. Ondoren, poteo musikaua herritik zehar eta bazkari herrikoia Elizondoko futbito zelaian egongo dira. Arrastian, Harrobi-Basurto futbol partidua jokatuko da Arlo-nagusian eta euren taldea, Harrobi, animetan joango dira. Bertan sortutako giro ona kalera aterako dabe poteoan, herria Pantx Seletorren eskutik animauz, eta "bokata zerbitzua" egongo da afalduteko.

Atzenik, eguna borobilduteko, 23:16tik aurrera kontzertuak egongo dira Karabie Gaztetxean. Calling the Riot eta Zeinke taldeak eta Dj Goiha Vehan izango dira futbolzaleak jantzan ipiniko dituenak.

## KONTZERTUA

## Hiru koru Igorren

## Erredakzioa

Apirilaren 29an, Bartzelonako Cor Albada, Leioako San Juan Bautista Abesbatzak eta Igorreko Luis Iruarizaga Abesbatzak koru musikako kontzertua eskeiniko dabe 20:00etan, Igorreko Andra Mari eleizan.

Cor Albada de L'Agrupacio Cor Madrigal, 1967an sortutako abesbatza da. Esteve Costaren zuzendaritzapean, 16 eta 35 urte bitarteko gazteak osotuten dabe abesbatza.

Hurrengo urtean, 1968an, sortu zan San Juan Bautista Abesbatza Leioan. Basilio Astulez Leioako Musika Eskolako kantu koraleko irakasle ezagunak zuzenduko dau korua.

Arratiarrak Jorge Truebaren zuzendaritzapean eskeiniko dabe euren erreperitorioaren zati bat. Luis Iruarizaga Abesbatza 1981ean sortu zan eta harrezkerotik, koru musikearen arloan beharrean dihardu zaletasuna bultzatzeko.

**belagorri**

mediku naturalista  
argaltzeko terapia  
kosmetika naturala  
elkagai biologikoak  
zelakoentzai elkagaiak  
esteziziena

Zamakoia, 9 - 48960 Galdakao  
94 600 21 12 - 94 600 87 56  
L. Agirre, 9 - 48140 Igorre  
94 631 14 39

**J.A. IZQUIERDO**  
PINTURA LANAK

MOKETA · SINTASOLA · PAPEREA

Elizalde, 33 D - 1ºB - 48140 IGORRE (Bukalea)  
Tel. 94 631 54 82 - 908 554 018

**www.arteak.com**

Artea gaitzen  
- Laguntza psikodidaktikoa  
- Logopedia  
- Fisioterapia  
- Psikomotorikotasun  
- Lanen arazoak  
- eta abar gaitzak

**AK-FEST** Arlo-nagusia Korner

Apirilak 28 zapatua LEMOA

**Goizean**  
10:16 Txupinazoagaz  
Street Football + Freestyle Txapelketak  
12:16 Poteo musikaua herritik  
15:16 Bazkari herrikoia

**Arrastian**  
18:00 Harrobi - Basurto  
20:16 Poteo animatua herritik

**Goizean**  
21:30 Afari zerbitzu musikau animala  
23:16 Kontzertuak Gaztetxean

**ZEINKE**

Bazkari tiketak (5€) herriko tabernetan

BARTZELONAKO "COR ALBADA DE L'AGRUPACIO COR MADRIGAL"  
LEIOAKO "SAN JUAN BAUTISTA ABESBATZA"  
IGORREKO "LUIS IRUARIZAGA ABESBATZA"

2018ko APirilaren 29a, IGANDEA  
ARRASTIKO 20:00etan  
20 DE ABRIL DE 2018, DOMINGO  
19:00 HORRETAN  
29 DE ABRIL DE 2018, DOMINGO  
19:00 HORRETAN  
IGORREKO ANDRA MARI ELIZAN



## ZERTU

# Zertu kultura alkarteko Batzar Nagusia

### Erredakzioa

Urtero lez, datorren apirilaren 20an, arrastiko 19:00etan, Igorreko Kultur Etxean, Zertu kultura alkarteko Batzar Nagusia egingo da. Batzar horretara Begitu-lagun eta Zertuko

kide guztiak konbidatuta dagoz. Ohi dan lez, alkararen aurreko urteko balantzea eta aurtengo ekitaldirako asmo eta proiektuak aurkeztuko dira. Baina, dana dala, alkararen zuzendaritzek gogorarazo dauan moduan, batzarraren helburu nagusia Begitu-lagunak diran guztiak berbea emotea da, euren eretxia eta proposamenak jaso ahal izateko.



## BERTSOLARITZEA

# Bertsolaritza, regueifa eta glosa Regueibertso ekimenean

### Illart Gumuzio

Hirugarren urtez jarraian, Institutuko 2. DBHko bertsolaritzako ikasleak Galizara egingo dabe alkartrukea Regueibertso ekimenaren barruan



eta aurren, barrikuntza moduan, Kataluniako ordezkariak be joango dira Galizara. Holan, hiru herrialdeotako ahozko inprobisazioa oinarri hartuta (Regueifa Galizan, Glosa Katalunian eta Bertsolaritza Euskal Herrian), egitarau oparoa izango dabe maiatzaren 1etik 4ra. Maiatzaren 2an, Santiago ikusteko tarte bat hartu aurretik, 1.000 ikusleko ekitaldi bi izango ditue Auditorio de Galician. Hurrengo eguna, maiatzak 3, Costa da Morteko Baio herrian (Zas udalerrian) pasauko dabe, eta amaitzeko, maiatzaren 4an, Pontevedrako Vila da Cruces ezetuko dabe, herri bi honeetako institutuak diralako Arratia Institutuagaz alkartrukea egiten dabenak.

## LEHIAKETEAK

# Kanporaketa biren ostean, hiru finalista dagoz

Zu bai Zu Igorreko Talentu Lehiaketan jokaturako kanporaketetan, epaimahaikoak Inizitu botoia hirutan sakatu dabe.

### Erredakzioa



bi geratzen dira eta Inizitu botoia: Olatz Gorrotxategi epaimahaikidearena eta Ismael Pereira "Isma" aurkezlearena. Gala edo kanpo-



Zu bai Zu Talentu Lehiaketako entseguetako irudiak.

Argazkiak: Imanol Garcia.

## DUNBA

# CLIL proiektua

### Zeberrioko ikastetxeko 5. eta 6. mailako ikasleak

Gu Zeberrioko 5. eta 6. mailako ikasleak gara. Oingoan Erasmus + eri buruz idatzi dogu. Europako eskola batzuen artean egiten dogun proiektua da.

Aurten egiten gabizen proiektuak CLIL dauka izena. Bere esanahia "Creativity, Learning, Inspiration and Language" da. CLILen Polonia, Letonia, Txekia, Finlandia eta Euskal Herriko eskola batzuek parte hartzean dogu eta gure artean ingelesez berba egiten dogu. Eskolen inguruan gehiago jakiteko, webgunean sartu ahal da.

Webean, CLILen parte hartzean dogunok idatzitako informazioa aurkitu daitezue.

Herrialde bakotxeak euren aurkezpena igon dabe webera.

Horretan egiten doguzan ekin-tzen argazki, bideo eta azalpen testuak igota daukaguz.

Kurso hasieran logoak egin genduzan eta gero euren artean bat aukeratu. Logo irabazleak proiektua errepresentetan dau.

Prezi-a be egin genduan Euskal Herria erakusteko.

Power Pointa be egin genduan. Taldeetan batu ginan herrialdeak lantzeko. Gutako batzuek Letoniakoa, Poloniakoa, Txekiakoa eta Finlandiakoa egin genduan.

CLILen barruan pilo bat gauza desbardin egiten doguz:

Harizko eskumuturrekoak, ponpoiak, arkatzak, orrialdeak, marketoak, Gabonetako marrazkiak

eta postalak.

Oin dala hilabete bi eta erdi janaria prestatzen hasi ginan. Talo pintxo, *sweet pizza* edo *chek rolls*.

2018ko zezeilaren 18tik 24ra 6. mailako 4 gelakide Letoniar joan ginan. Han familia bitan banandu ginan. Neskak alde batetik eta mutilak bestetik. Mutilak Patrickson etxera joan ginan eta neskak Loteren etxera. Patrickson eta Lote Letoniako 5. mailako ume batzuk dira.

Han hainbat ekintza egin genduzan: jolasak, klaseak, lekuak bisitatu, udaletxea bisitatu eta gozoki fabrika bat be bisitatu genduan. Eskolara goizeko 08:30ean sartzean ziran eta gu 09:00etan sartzean ginan.

Zaldi lera be ibili ginan leitutako erreka baten gainetik. Gero salda bero tradizionala hartu genduan. Ogi antzeko bat egin genduan, barruan mermeladea sartuta. Gauza asko ikusi eta ikasi daitezke holango biajeetan.

2018ko maiatzaren amaieran 6. mailako beste bost ikasle Poloniara joango dira, irrikitan dagoz ea zer ikusiko daben.

Herrialde bakotzak maskota bat dauka: Euskal Herriak Txubel, Finlandiak Angry Bird, Letoniak Apu, Poloniak M.R. Bunny eta Txekiakoa.

Maskotakaz batera liburu bana daukagu eta hor esperientzia bereziak idazten doguz.

Hurrengo urtean oin 5. mailan dagozanak Txekia edo Finlandiara

raketa honeek apirilaren 28an eta maiatzaren 5ean izango dira. Finalurrekoak maiatzaren 19 eta 26an eta final handia bagilaren 10ean.

### Sarrera guztiak agortuta

Zu bai Zu Talentu Lehiaketak ikusmin handia sortzean dau eta Lasarte Aretoa bete egin da, eta bigarren galan, sarrera guztiak saldu ziran. Izan be, alde batetik, ikuskizun ugariak dira eta artista batzuk hurrekoak eta beste batzuk ez, baina danak euren onena emoten. Eta bestetik, Igorreko Talentu Lehiaketan, aurkezlea be talentuduna da eta bere kantu, jantza eta umorea-gaz animetan dau ekitaldia.





## AGENDEA

APRILAK 16  
DIMA

Maiatzaren 4ra arte, Dimako jaietako kartelerako irudi lehiaketeta.

## IGORRE

Beharbidetako. Orientazio sesinoa Kultur Etxean.

Maiatzaren 31ra arte, Euskaltzaleen Topaguneak antolatutako dauan Irakurri, Gozatu eta Oparitu kanpaineta.

Maiatzaren 10era arte, Arratia Raid ertainean izena emoteko epea zabalik.

19:00etan, *Guk gure pentsioak* berbaldi zabala. Hizlariak: Nerea Kortajarena, Eusko Legebiltzarkidea eta Jose Felix Aguilera, pesionisten alkarteko kidea. Kultur Etxeko Erakusketa Gelan. EH Bilduk antolatuta.

## LEMOA

28ra arte, Txubin Txapelketan izena emoteko epea kiroledegian edo 665 520 827 WhatsAppean.

## UBIDE

Udalak alokairuan daukan etxebizitza alokairuan hartzeako eskariak egiteko zabalik hilaen 30era arte.

## ZEANURI

Maiatzaren 6ra arte, Gorbeia jubilatuen alkarteak maiatzaren 9rako antolatu dauan urtekeran izena emoteko epea. Mirandaola, Ordizia eta Oñatira txangoa.

Maiatzaren 30era arte egin leikiez erreserbak Gorbeia Aterpean udalekuak egin gura dituen alkarteak.

## ZEBERIO

Maiatzaren 9ra arte, Zeberio Harana mendi martxan izena emoteko epea zabalik.

## APRILAK 18

## IGORRE

19:00etan, *Nosotras, mujeres de Euskalduna* dokumentalaren proiektzioa Lasarte Aretoan.

## APRILAK 19

## IGORRE

Beharbidetako Igorreko Enplegu Proiektuaren Ate Irekiko jardunaldia.

Maiatzaren 14ra arte, Iñaki Markaidaren *Analogikotik digitalera* erakusketa.

20:00etan, zinekluba. *Die Geschichte vom Weindenken Kamel* Lasarte Aretoan.

APRILAK 20  
ARTEA

20:30etan, Houston Pub taldearen kontzertua Kultur Etxeko Areto Nagusian.

## BEDIA

19:30etan, GRAVNI Bizkaia vs Araba.

## LEMOA

18:00etan, Skolastika taldearen eskutik literatura saioa liburutegian.

19:30etan, EAJ-PNVk antolatuta, *Aratirarakaz*



## Mami Lebrun antzezlanaren Igorren

Apirilaren 21ean, Xake Produzioak antzerki taldeak, 2017ko Donostia Antzerki Saria irabazi eban *Mami Lebrun* lana taularatuko dau 20:00etan, Igorreko Lasarte Aretoan.

Getari Etxegaraireren zuzendaritzapean, Kepa Errastik, Ane Pikazak eta Ainara Ortégak egingo dabez aktore lanak. Donostia Antzerki Sariaren epaimahaiaren arabera, "sorkuntza handiko lana izateaz gainera, energia handikoa da eta ikuslea hunkitzea lortzean dau". Elementu asko buztartzen ditu lanak: jantzea, musika, umorea...

## Sinopsia

Egoitz eta Miren amama Kontxa hil barriaren omenaldia prestatzen dabiz. Amamaren etxeko kamaran topatutako eguneroko batzuetan oinarritutako dira, Kontxak gaztetan Pariseko cabaret baten bizi izandakoak kontetako. Horixe izango da omenaldiaren ardatza. Baina Mireneri kontatu ez deutsan sekretu bat dauka Egoitzek.

berbetan kirolaren gaineko mahai-ingurua. Lorea Bilbao, Asier Etxezarraga, Aitzol Atutxa eta Danel Elezkano. Jubilatuen tabernearen gaineko aretoan.

## APRILAK 21

## BEDIA

16:00etan, familiako urtekera: *Break on Stage*. Derio.

## LEMOA

10:00etan, Ganzabal Mendi Taldeak, JB Eguzkitza Meabe Ikastetxeak eta Udalak antolatuta, Zugatz Eguna San Antolinen. Elizondon.

## ZEANURI

III. Dantzari Eguna. 11:00etan, harrera plazan; 11:30etan, kalejireta; 12:00etan, jantza emonaldia eskolan; 14:30etan, bazkaria frontoian; 16:00etan, Kitu taldeagaz kantuan eta jantzan; 18:00etan, jantzapotea heria girotuz.

## APRILAK 22

## IGORRE

12:30etan, Igorren Ebatzik antolatuta, maiatzaren 6ko herri kontzertuaren zinegotzien babes ekitaldia.

17:00etan, zinea *Maya erlea: eziko jokoak*; 22:00etan, *Lady Bird* Lasarte Aretoan.

## LEMOA

09:00etan, Bagabiz Badatoz-ek antolatuta, Lemoako presoak alkatasun mendi martxea. Elizondo-Aiziti-bidugana (294 m.)-Arraño-Azurreka-Elizondo. Ondoren kopaua.

Udalak antolatuta, Narrazio Lehiaketako lanak entregetako atzen eguna. Udaletxean edo [kultura@lemoa.net](mailto:kultura@lemoa.net) helbidean.

## APRILAK 23

## ARTEA

Goizean *bookcrossing* eskolan, 17:00etatik 19:00etara, plazan; 19:00etan, ipuin kontalaria Kultur Etxeko Areto Nagusian.

## BEDIA

18:00etan, Apika ipuin kontalariaren eskutik, *Ipuinak dantzan* liburutegian

## IGORRE

10:00etan, Beharbidetako. Orientazio saioa Kultur Etxean.

## APRILAK 24

## LEMOA

JB Eguzkitza Meabe Ikastetxeak eta Liburutegiak antolatuta, *bookcrossing*, liburuak "askatu".

## APRILAK 25

## AREATZA

18:00etan, Uparan jubilatuen alkarteak antolatuta, *Alimentación sana y equilibrada* berbaldi Itziar Ereño erizainaren eskutik Udaleko Areto Nagusian.

## IGORRE

15:00etatik 21:00etara, Arratiako Gurutze Goriaren ikastaroa, *Elikagaien manipulazioa*. Gurutze Goriko titulua.

## LEMOA

17:00etan, Bertsolaritza. Bizkaiko Eskolarteko Txapelketako 4. kanporaketan Jubilatuen tabernearen goiko aretoan.

## APRILAK 26

## AREATZA

17:00etatik 18:00etara, Ate irekien jardunaldia Haurreskolan.

## IGORRE

19:30etan, *Eztabaida energetikoa Bizkaian*. *Autopista elektrikoak norentzat?* Lasarte Aretoan.

## APRILAK 27

## ARTEA

19:30etan, Südürüzki eta Farandü Leiroak kaleko musikariaren kontzertua Herriko Bantan.

## DIMA

Alberto Bargos ipuin kontalariaren eskutik, *Liburua*

*hori alborra*. Liburutegian.

## IGORRE

17:00etan, IPES alkartearen eskutik, *Gernikaren Egiak*. Oroimen biziko herria ikus-entzunezkoaren proiektzioa Kultur Etxean.

18:00etan, LaEnanaNaranjaren *Kontukantari 2*. *Mendian ibiltari* txobongilo ikuskizuna Kultur Etxean.

## LEMOA

Maiatzaren 1era arte, Ganzabal Mendi Taldeak antolatutako urtekera Leonera. Cirbanal (2.077 m.)-Estorbin de Valverde (2.123 m.)-Picos del Fontan (2.414 m.)-Huevo de Faro (2.155 m.).

## APRILAK 28

## BEDIA

09:00etatik 18:00etara, familiako urtekera Albaolara (itsas kultur faktoria).

## IGORRE

08:00etan II. Euskal Herriari Itzulia motorrez.

20:00etan, Zu bai Zu Talentu Lehiaketako kanporaketeta Lasarte Aretoan.

## LEMOA

AK-16 Fest. 10:16an txupinazoa Elizondon; Street Football eta Freestyle txapelketak; 13:16an, poteo musikatu heritik; 15:16an, bazkari herrikoa Elizondoko futbito zelain; 18:00etan, Harrobi-Basurto futbol partidua; 20:16an, poteo animaua herriki; 21:30etan, afari zerbitzu musikau-animaua Abeta aurreko plaza gorrian; 23:16an, Calling the Riot eta Zeinke eta DJ Goihan Vehan Gaztetxean.

09:00etatik 14:00etara, *Natura* argazki tailerra. Izena emoteko aurreko egunean Udaleko Kultura Zerbitzuan.

## ZEANURI

10:00etan, Gorbeia Jubilatuen Elkarteak antolatuta, *Ipar marxa* ikastaroa plazan.

## APRILAK 29

## AREATZA

Gorbeia Parke Naturalak antolatuta, ibilbide didaktikoa geologia ezetuteko. Geologian adituak diranakaz Itzina ingurua. Izena emoteko 94 673 92 79 edo [gorbeia.parke.naturala@bizkaia.eus](mailto:gorbeia.parke.naturala@bizkaia.eus).

## IGORRE

17:00etan, zinea *Peter Rabbit*; 22:00etan, *Gorion rojo* Lasarte Aretoan.

20:00etan, Bartzelonako Cor Albada de L'Agrupació Cor Madrigal, Leioako San Juan Bautista Abesbatza eta Luis Iruamizaga Abesbatza Andra Mari eleizan.

## IRAGARKI LABURRAK

## SALDU

## AUTOA SALGAI

Suzuki SJ 410 Hard Top urdina (3.200 euro). 130.000 km., 45 zaldi, ITVa pasauta, errobera barriak, narruzko jesarlekuak, mantenimendu guztia egunean eroandakoa, garajejan aparkautakoa eta atoi boleagaz. Telefonoa 688 602 516.

## AUTOA SALGAI

Nissan Terrano II 2.7. Motorra egoera onean, remolkearentzako boleagaz, 3 ate eta 232.000 kilometro. 1999 urtekoa. Telefonoa 628 041 526.

## BEDARRA SALGAI

Bedar siku bolak salgai. Interesdunak 628 041 526 telefonora deitu.

## DANERIK

## LAN BILA

Lana behar dogun Areatzako bikotea gara. Arlo honeetan behar egiteko prest gagoz: ostalaritza, edadekoen zaintza, mendia, garbikuzia, komertzioa, nekazaritza... Interesdunak deitu 632

159 270 telefonora.

## JATETXEA ALOKAIKIRUAN

Urbide jatetxea alokatzen da Ubiden. Errendimendu osoan, eta erabat horniduta. 50 lagunentzako lekua. Interesdunak deitu 609 384 700 edo 679 112 216 telefonora.

## ZERBITZARIA BEHAR DA

Igorreko Axular Herriko Tabernan zerbitzaria behar da astegoieneratarako. Interesdunak 94 673 70 92 telefonora deitu edo bertan emon izena.

**Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. [begitu@topagunea.com-era](mailto:begitu@topagunea.com-era). Mezuak doban dira.**

## Begitu-lagunen txokoa

## Zenbaki honetako saridunak:

1

Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Mami Lebrun* antzezlenerako.


Iker Zamakona (Areatza)  
Laura Korta (Igorre)



2

Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Gorion rojo* filmarako.

Karmelo Uriarte (Amorebieta)  
Alazne Ziarrusta (Igorre)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,

zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 16 urte eta ehundaka lagun.



## DENPORA-PASA

IMAN OLATU

	1	2	3	4	5	6	7
1							
2							
3							
4							
5							
6							
7							
8							
9							

### EZKERRETIK ESKOIERA

- 1.- Sermoi.
- 2.- Itxi. Ezetza.
- 3.- Bokala.
- 4.- Pilare.
- 5.- Ohartu arazoteko interjekzioa.
- 6.- Hareazko basamortu.
- 7.- Boroa. Uribildu. Konsonantea.
- 8.- Errepetiduta, kontuz. Polit.
- 9.- Bizkaiko udalerria.

### GOITIK BEHERA

- 1.- Enparantza. Hitzordu, zita.
- 2.- Nora atzikia. Herri-lur. Letra izena.
- 3.- Plan. Bokala.
- 4.- Eguna.
- 5.- Bat erromatar. Esana egin.
- 6.- Suagaz batera. Gaixo. Erbioa.
- 7.- Uxaka. Kolore bizi.

9	Z	E	A	N	U	R	I
8	E	T	E	R	I	R	
7	R	U	R	I	R		
6	O	D	I	O			
5	A	S	A	S	A		
4	U	T	A	B	E		
3	A	I	T	O			
2	L	A	G	A	E		
1	P	R	E	D	I	K	U

Topau andrazkoen zazpi eskubaloi ekiporen izenak.

S	O	R	A	L	U	S	E	K	O
A	V	I	A	Z	O	R	U	G	A
B	A	L	T	I	U	K	A	R	E
O	L	G	O	P	E	A	T	A	Z
T	L	U	K	A	R	U	Z	N	A
E	A	H	A	R	M	E	L	O	I
R	D	U	M	E	A	R	K	L	R
P	O	R	R	I	Ñ	O	H	L	A
I	L	D	A	Z	O	P	I	E	N
A	I	C	N	E	L	A	V	R	A
O	D	A	M	E	G	O	Z	S	C
K	A	R	T	A	L	O	N	E	N
O	A	R	E	B	A	R	E	B	A
M	A	R	I	Z	T	A	K	O	R
S	A	L	O	M	A	N	C	U	G



Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE  
Tfnua. 94 631 92 96 • seimoda@hotmail.com

GARRAIKAK, NEUMATIKOAK ETA ZERBITZUAK  
Garbe, 29 Telefonua: 94 673 60 14 IGORRE-BIZKAIA

AKETEGLA  
GAY & LORA  
IGORRE

Igorren  
**ARKITEKTOA**  
Aitzol Aurrekoetxea Pujana  
Lehendakari Agirre 23, behea  
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.  
Angel Larrea  
Zornotza Tfnua 649 86 95 36

**KIRRU**  
ILEAPAINDEGIA  
KOSANA eta ROBER  
SABINO ARANA 38  
IGORRE  
TUF. 94 631 92 00

**NAIARA** Hertz Klinika  
Lehendakari Agirre, 19  
48140 Igorre  
04631 52 26

**ZUZENBIDE**  
ASEGURUAK: AUTOAK, ETXEBIZITZAK, DENDAK, ISTRIPUAK, BIZITZA...  
ABOKATUAK: ZUZ. ZIBILA, KONTSUMO ZUZ., ADMINISTRAZIO ZUZ., INGURUGIRO ZUZ.  
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA, ZERGAK, KONTABILITATEA  
Tfn. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96 Sabino Arana 3, behea - Igorre (Bizkaia)

**BIXER**  
TABERNA  
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARDO

Jose Luis Corbacho  
**pintura lanak**  
Sabino Arana, 3. 3a  
Igorre 48140 Bizkaia  
94-673-70-87  
609-79-40-54

**Orre**  
FOTOKOPIAK - PAPERDENDA  
L. Agirre, 2.  
48140 Igorre (Bizkaia) Tfnua: 94 673 61 25

Pinturas Anatia  
Javi Morato  
Tel. 628 443 992



# Iberdrolak eta AVIAk elektrizidade bidezko mobikortasuna bultzatuko dabe gasolina-zerbitzuguneetan arin kargatzeko puntuak ugarituz

- **Raquel Blancok, Iberdrolako Smart Solutions-en zuzendariak, eta Kepa Etxebarrik AVIAren zuzendari nagusi ondokoak, akordioa sinatu eben martiaren 26an, AVIAk Espainian dituan gasolina-zerbitzuguneetan, Iberdrolak arin kargatzeko puntuen instalazioari ekiteko.**
- **1,35 miloe euroko hasikerako inbersino batez, enpresa biak arin kargatzeko lehenengo 27 puntuak instalatzeari ekingo deutesie. Honeek, Euskal Autonomia Erkidegoa, Gaztela eta Leon, Kantabria, Gaztela-La Mancha, Katalunia, Andaluzia, Madrilgo erkidegoa, Errioxa, Nafarroa eta Aragoiko gasolina-zerbitzuguneetan ipiniko ditue.**

Iberdrolak eta AVIAk alkarlanerako hitzarmena sinatu dabe AVIAk Espainian dituan gasolina-zerbitzuguneetan elektrizidade bidezko mobikortasuna bultzatzeko, ibilgailu elektrikoentzako arin kargatzeko puntuak ezarriz. Enpresa biak lehenengo 27 kargatze puntuak instalaletako beharretan dabiz eta horretarako 1,35 miloe euro inguru ditue.

Donostiako AVIAren egoitzan egindako ekitaldi baten, Iberdrolako Smart Solutions-en zuzendaria Raquel Blancok eta AVIAren zuzendari nagusi ondokoa dan Kepa Etxebarrik, ibilgailu elektrikoak bultzatzeko helburua daukan hitzarmen hau sinatu eben, ibilgailu elektrikoak behar dauan azpiegiturea gasolina-zerbitzuguneetan ipinteko.

Arin kargatzeko lehenengo puntu honeek, hurrengo hileotan

# AVIA



egongo dira prest AVIAren gasolina-zerbitzuguneetan; Gipuzkoan, Araban, Bizkaian, Kantabrian, Huelvan, Bartzelonan, Burgosen, Ciudad Realen, Errioxan, Madrilen, Nafarroan, Palencian, Salamancan, Tarragonan, Zamoran eta Zaragozan, hain zuzen be.

Hitzarmen honeri esker, gasolina-zerbitzugune honeetako batera doazen erabiltzaileak kotxearen bateria arin eta errez kargau ahal izango dabe, Smart Mobility planaren barruan (kotxe elektrikoentzako urtenbide globala) Iberdrolak garatutako gailu mobikortezako *Recarga Pública Iberdrola* izeneko aplikazioagaz.

Holan, enpresa biak etorkizuneko mobikortasun elektrikoak bultzatuko dabe, leku estrategikoeetan, arin kargatzeko puntuen sarea gero eta zabalago eginaz.

**ADENOREk, alokairuan hartutako gasolina-zerbitzuguneetan espezializauta dagoanak eta Igorren egoitza daukan AVIA taldearen filialak, Canet eta Cuencako gasolindegia zabaldutuenetik, 40 gasolindegi kudeatzen ditu.**

**Egindako akordioai esker 50 izango dira 2018an. AVIA taldeak 180 zerbitzugune eta 25 banaketa-zentro ditu Espainiako estatuan.**

